# Emakumeen Aztarnak, Aztarna Feministak

**Ermuko Emakumeen Asanbladak** gure herriko borroka feministen historia argitara atera nahi du erakusketa honen bidez, zertarako eta gure herriaren historiari egindako ekarpenak bistaratzeko, merezi duten aitortza jasotzeko eta proiektatzeko bai berdintasunaren alde egindako lana bai, emakume zein gizon, gu guztion herri honen garapenaren alde egindakoa.

Emakumeen eta feminismoaren aztarnek emakumeentzat zein feminismoarentzat Ermuan garrantzitsuak izan diren espazioak eta tokiak irudikatzen dituzte. Zertarako aritzen gara aztarnei buruz? Aitortza egiteko, oroimenaren espazioak berreskuratzeko eta sortzeko, eta, etorkizuneko emakumeen eta gizonen belaunaldiek berdintasunaren aldeko borrokaren iragan kolektiboa ezagutzeko eta transmititzeko.

# Huellas de mujeres, Huellas feministas

La **Asamblea de Mujeres de Ermua**, a través de esta exposición, pretende rescatar la historia de las luchas feministas en nuestro municipio para visibilizar las aportaciones que éstas han realizado a la historia de este pueblo, otorgarles el reconocimiento merecido y proyectar su lucha por la igualdad y por el progreso de un pueblo que es nuestro, de todas y todos.

*Las huellas de las mujeres y del feminismo* representan los momentos y los espacios que han sido y son importantes para las mujeres y el feminismo en Ermua. Hablamos de huellas para que se reconozcan, para recuperar y crear espacios de la memoria que sirvan para transmitir a las generaciones futuras el pasado colectivo de la lucha por la igualdad.







ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

# Emakumeen sustapenerako Zentroa

1970. urtea VI Centenario kalea z/g

Sukaldeko errezetak eta jostun lanak egiten, irakurtzen eta idazten ikasiaz batera landu zuten emakumeek gabezien eta arazo sozialen gaineko sentsibilizazioa; ikuspegi kritikoa garatu zuten eta herriko bizitza sozialean eta kulturalean parte hartzeko konpromisoa hartu zuten. Zentro haiek izan ziren topaleku bat hainbeste emakumerentzat, baina, aldi berean, jabekuntza pertsonala zein kolektiborako guneak ere bai.




# Centro de Promoción de la mujer

año 1970 Calle VI Centenario, s/n

A la vez que aprendían recetas de cocina y costura, o aprendían a leer y escribir, fueron sensibilizándose de las carencias e injusticias sociales, desarrollaron un amplio sentido crítico y un compromiso de participación en la vida social y cultura. Estos centros fueron lugares de encuentro y empoderamiento personal y colectivo para muchas mujeres.



# El urbanismo,

## *reflejo de la desigualdad social*

año 1970 Todo el municipio
Asociación de Familias

año 2003 Mapa de la ciudad prohibida

El desorden urbanístico de los años 60 y 70 del siglo XX y la total carencia de servicios de cualquier tipo era sufrido, sobre todo, por las mujeres, que eran y son -principalmente- las usuarias de estos servicios y del espacio físico del municipio.

Por ello, desde el comienzo de las reivindicaciones ciudadanas con la fundación de la Asociación de Familias, las mujeres de Ermua han participado activamente en la consecución de servicios y la remodelación de los espacios urbanos municipales, pugnando por introducir la mirada de las mujeres, es decir, la perspectiva de género, en el urbanismo.

# Hirigintza,

## *desberdintasun sozialaren isla*

1970. urtea Udalerri osoa
Familien Elkartea

2003. urtea Ermuko hiri debekatuaren mapa

Emakumeak ziren, gehienbat, 60ko zein 70eko hamarkadetako hiri antolamendu eza eta erabateko zerbitzurik eza pairatu zituztenak; izan ere, orduan ere, haiek erabiltzen baitzituzten nagusiki herriko zerbitzu eta espazio fisikoak.

Horregatik, herritarren aldarrikapenak hasi eta, Familien Elkartea sortzearekin batera, Ermuko emakumeek partaidetza aktiboa izan dute zerbitzuak lortzerakoan, udalerriko hiri espazioak birmoldatzean, eta, azken batean, emakumeen begirada txertatzeko lehian, hots, genero ikuspegia hirigintzan txertatzen.

La calle y los espacios públicos también son nuestros







Kalea eta espazio publikoak gureak ere badira

# Lantegiak

## *ordaindutako lana: emakumeen askatasuneruntz bultzada*

Lantegiak

Hirurogeiko hamarkadaren amaiera eta hirurogeita hamarrekoaren hasierako urteak aldarrikapen urteak izan ziren, hainbat lege aldaketa egin ziren eta lan arloko demandak nonahi. Ermuko emakumeentzat ere beste fronte bat izan zen eta gogor borrokatu behar izan zuten beraien eskubideen alde.

Hasieran, emakumeek parte hartzen zuten borroka haiek langileriaren lan baldintza orokorrak hobetzea zuten xedea; denbora pasa ahala, ordea, beste errebindikazio batzuk izan dituzte jomuga lantegietan, hala nola: tratu bera lortzea eta eskubide eta soldata berberak lortzea.

### Enplegua nahi dugu, lana soberan dugu eta






# Las fábricas

## *el trabajo remunerado: un impulso hacia la libertad de las mujeres*

Fábricas y centros de trabajo

Finales de los 60 y principios de los 70 del siglo XX, fueron años de reivindicaciones, cambios legislativos y demandas laborales. También en Ermua, fue un frente más en el que las mujeres tuvieron que pelear con gran dureza por el reconocimiento de sus derechos.

Al principio, las luchas en las que participaban las mujeres tenían que ver con la mejora de las condiciones de la clase obrera en general; con el tiempo se han ido introduciendo reivindicaciones para conseguir la igualdad de trato, de derechos y de salario en las fábricas.

### Queremos empleo, trabajo nos sobra

*Oficina de información para*

# trabajadoras de hogar

año 1993 bajos del ayuntamiento

año 1996 antiguas escuelas de la estación




La división sexual del trabajo supone, en el terreno laboral, empleos peor remunerados y economía sumergida. Este es el caso de las trabajadoras de hogar.

La **Oficina de Información a Trabajadoras de Hogar**, impulsada por la Asamblea de Mujeres, tenía, entre otros objetivos, exponer y denunciar las condiciones laborales de estas trabajadoras y exigir la reforma de una ley que no les garantizaba unos derechos laborales mínimos.

La Reforma del año 2012, que ahora las incluye en el Régimen General de la Seguridad Social, no ha supuesto una mejora de sus condiciones laborales.




# Etxeko langileentzako

*informazio bulegoa*

1993. urtea udaletxeko behealdea

1996. urtea tren geltokiko eskolak

Txarto ordaindutako enpleguak eta ezkutuko ekonomia lan esparruan izandako sexu banaketaren ondorioak dira.
Horixe da, hain zuzen ere, etxeko langileen kasua.

**Etxeko Langileentzako Informazio Bulegoak,** Emakumeen Asanbladak bultzatuta, honako helburu hauek zituen, besteak beste: salatzea etxeko langileen lan baldintzak eta horien berri zabaltzea, eta etxeko langileen legearen aldaketa eskatzea, lege horrek gainerako langileei bermatutako gutxiengo lan eskubideak ez baitzuen jasotzen.

2012ko erreformaren bitartez kolektibo hau Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartu zen, baina, hala eta guztiz ere, horrek ez die ekarri hobekuntzarik euren lan baldintzetan.

# Cuidados,

## *una tarea pendiente*

años 1981-1985   Acciones y reivindicaciones




Desde los inicios de la lucha feminista se ha reivindicado: el reconocimiento de las labores relacionadas con la reproducción en el ámbito privado, como un trabajo; la corresponsabilidad, el reparto equitativo de las tareas domésticas y de cuidados entre mujeres y hombres; la responsabilidad del Estado en la procura de los servicios necesarios y la involucración de las Empresas que no pueden mirar para otro lado en la responsabilidad sobre los cuidados necesarios para el mantenimiento de la vida.

Las mujeres de Ermua, a lo largo de los años, han desarrollado múltiples iniciativas, actividades y campañas por la igualdad en la responsabilidad de los cuidados:

- Insumision al servicio familiar obligatorio.
- Campaña "Compartir tambien es ganar".
- Plataforma por un Servicio Público Vasco de Atención a Personas Dependientes.




## La plancha y la fregona para todas las personas

# Zaintza lanak,

## *gainditu gabeko erronka*

1981etik-1985era   Ekintzak eta aldarrikapenak

Hasiera-hasieratik, borroka feministaren aldarrikapenak izan dira hauek: aitortzea eremu pribatuko ugalketari lotutako zereginak lan gisa, erantzunkidetasuna ezinbestekoa dela eta etxeko eta zaintza lanak partekatu beharra dagoela emakumeen eta gizonen artean, eta, era berean, nahitaezkotzat jo du hala Estatuaren erantzukizuna nola enpresen inplikazioa; batak beharrezko zerbitzuak hornitzeko eta besteak, beste aldera begiratu gabe, ardura hartzeko bizitzaren mantentze-lanetarako beharrezkoak diren zaintzak kontuan izaten.

Ermuko emakumeek, urteetan zehar, ekimen, ekintza eta kanpaina asko garatu dituzte gizonen eta emakumeen erantzunkidetza sustatu nahian:

- Derrigorrezko familia zerbitzuari intsumisioa.
- "Konpartitzea irabaztea da" Kanpaina.
- Mendekoen Arretarako Euskal Sistema Publikoaren aldeko Plataforma.

## Plantxa eta fregona, denontzat

# Planina

1981etik-1985era — Osasun zentroaren behealdean

Feminismoak aldarrikatzen zuen **planin zentro bat auzo eta herri bakoitzean,** hortaz, zentro horiek abian jartzea izan da mugimendu feministaren lorpen esanguratsuenetariko bat.

**"Antisorgailu eta Sexu Informaziorako Udal Zentroa"** bihurtu zen heziketa sexuala lantzeko funtsezko espazioa eta, aldi berean, osasun ofizialaren alternatiba. Zentro horretan informazio espezifikoa ematen zieten emakumeei hainbat gairen gainean, hala nola: ugalketa prozesuak, antisorgailuak, abortua, sexualitatea eta abar; betiere, azpimarratuz sexualitatea eta amatasuna ez direla bat.

Ermuan zentroa lau urtez egon zen martxan, herriko mugimendu feministaren segimendupean eta, batez ere, Ermuko Emakumeen Asanbladak egin zuen jarraipena.

Planing zentroek euren hasierako filosofia galdu zuten Osakidetzak bereganatu zituenean, eta horrek mobilizazio ugari ekarri zuen.

# El planing

años 1981-1985 — Situado en los bajos del ambulatorio

La puesta en marcha de estos centros de planificación ha sido uno de los grandes logros del movimiento feminista, que reivindicaba la creación de un centro en cada barrio y pueblo.

En Ermua, el **"Centro Municipal de Contracepción e Información Sexual"** llegó a ser un espacio fundamental de educación sexual y una alternativa a la asistencia sanitaria oficial. En este centro se ofrecía información específica a las mujeres sobre sus procesos reproductivos, sobre contracepción, aborto, sexualidad, etc., insistiendo en la idea de que "sexualidad no es igual a maternidad".

En Ermua estuvo en marcha aproximadamente cuatro años, bajo el seguimiento del movimiento feminista del municipio y -especialmente- de la Asamblea de Mujeres de Ermua.

Los planings perdieron su filosofía inicial cuando fueron absorbidos por Osakidetza, a lo que sucedieron numerosas movilizaciones.


Ermua

**La remodelación del Centro de Planificación Familiar será estudiada en el Ayuntamiento**

debaldea/19

Ermua

**La Asamblea de Mujeres por la mejora del «planing»**






# Gazteentzako **sexu informazio** bulegoa

1993tik 1995era San Isidro kalea

ekainak 28 Askatasun Sexualaren Nazioarteko Eguna

Ermuko Emakume Gazteok jarri zuen martxan "bulegoa", Emakumeen Asanbladaren laguntzarekin. Herriko gazteriarentzat (eta inguruko herrientzat) erreferentzia-gune zen bulego hark honako hau eskaini nahi zuen: ***"gazteek sexualitateari buruzko ezagutza handiagoa izatea eta antisorgailuen eraginkortasuna hobetzea".*** Horrez gain, sexualitate eredua zalantzan jarri nahi zuen eta sexu aukeratze askea aldarrikatu.

Sexu askatasuna eta aniztasun sexuala herriko talde feministen beste aldarrikapen garrantzitsu bat izan da, alegia, ekainaren 28aren ospakizuna.

Udalak erretiratu zuenean proiektu honentzako dirua, haibat ekimen burutu ziren "bulegoaren" itxieraren kontra.

*Gure gorputzak, gure bizitzak*











*Nuestros cuerpos, nuestras vidas*

# Oficina de **información sexual** para jóvenes

años 1993-1995 Calle San Isidro

28 de junio Día Internacional de la Libertad Sexual

El Grupo de Mujeres Jóvenes de Ermua, en colaboración con la Asamblea de Mujeres, pone en marcha "la oficina". Referente para mucha gente joven del municipio (y de los municipios más próximos), pretendía ofrecer una información cercana y **"aumentar los conocimientos de las y los jóvenes en el terreno de la sexualidad, así como mejorar la eficacia contraceptiva"**. Además, se pretendía cuestionar el modelo de sexualidad y reivindicar la libertad de elección sexual.

La libertad y diversidad sexual ha sido otra de las grandes reivindicaciones de los colectivos feministas del municipio como la celebración del 28J.

Cuando el Ayuntamiento retiró los fondos para el proyecto hubo varias movilizaciones en contra del cierre de "la oficina".

*Azken finean guri zuzendurik dago*
*Eta gazteok erantzungo dugu gogor*
*Nos quieren engañar con el planing*
*Relacionando sexo y enfermedad*
*No queremos ser madres*
*Queremos disfrutar*
*Sexo seguro tabúes romperás**

* Extracto de la canción creada por "Emakume Gazteok" en protesta por el cierre de la Oficina.

# La lucha de las mujeres

## contra la violencia machista



25 de noviembre · Plaza Cardenal Orbe

Día internacional contra la violencia hacia las mujeres

La violencia contra las mujeres -elemento fundamental de control en el sistema de dominación patriarcal- es uno de los ejes de lucha del movimiento feminista. En Ermua, la Asamblea de Mujeres ha sido un grupo de referencia y apoyo para las que han sufrido algún tipo de agresión, exigiendo también recursos para su atención integral desde una perspectiva de empoderamiento de las mujeres.

El 25 de noviembre, día que simboliza precisamente esa lucha contra la violencia hacia las mujeres a nivel mundial, se vienen convocando desde hace años concentraciones ciudadanas de denuncia pública bajo la consigna **“No a las agresiones sexistas”**, **“Ninguna agresión sin respuesta”**







# Indarkeria matxistaren kontrako

# emakumeen borroka

Azaroaren 25ean · Plaza Cardenal Orbe

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna

Emakumeen kontrako indarkeria -sistema patriarkalaren kontrola eta dominazioa ezartzeko oinarrizko elementua-da borroka feministaren ardatz nagusia. Ermuan, Emakumeen Asanblada erreferentziazko talde eta laguntza izan da era guztietako eraso matxistak jasan dituzten emakumeentzat, arreta osoa emateko baliabideak exijituz emakumeen beraien jabekuntzaren ikuspegitik.

Urteak dira azaroaren 25ean, mundu osoan emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokaren sinbolo den egunean, hiritarren kontzentrazioak eta salaketa-ekintza publikoak deitzen direla **“Eraso sexistarik EZ!”**, **“Erasorik ez, erantzunik gabe!”** lelopean.



*Indarkeria matxistaren kontrako*

# emakumeen borroka

1988. urtea — Emakumeen arretarako bulegoa
Kardinal Orbe Plaza (merkatu plaza ohia)

Tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzako babes-etxea

2006. urtea — Tratu onen aldeko plataforma
Emakumeen topalekua
Kardinal Orbe Plaza

Nahiz eta emakumeek aspaldi ekin zioten indarkeria matxistaren kontrako borrokari, oraindik beharrezkoa da gai publiko eta gizarte-arazo legez definitzea… desberdintasunaren ondoriorik larriena.

Emakumearen Asanbladak hartu zuen bere gain Udalari udal zerbitzuak sortzeko eskaera: Emakumeen Arretarako Bulegoa, 1988an ireki zena, eta Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako babes-etxea, gaur arte emakumeak eta beraien seme-alabak jaso dituena.

Hiritarrek ere arazo larri honi aurre egiteko gaitasuna erakutsi dute, guztioi irekita dauden plataformak sortuz, horien bitartezhausnarketa egiteko, prebentziorako edo tratu onak suspertzeko, eta emakumeek "nahikoa da!" esan dezaten eta lasaitasunez eta askatasunez bizi daitezen.


ERMUA

La Oficina de Atención a la Mujer, en marcha

Así como un «piso-refugio», el primero del Bajo Deba

La Oficina de Atención a la Mujer, servicio municipal dependiente del área de Bienestar Social, y que cuenta, además de con la propia Oficina de Atención «directa», con un






# La lucha de las mujeres

*contra la violencia machista*

año 1988 — Oficina de atención a la mujer
Plaza Cardenal Orbe (antigua plaza del mercado)

Piso refugio para mujeres maltratadas

año 2006 — Plataforma por los buenos tratos
Casa de la Mujer
Plaza Cardenal Orbe

A pesar de que hace mucho tiempo que las mujeres emprendieron la lucha contra la violencia machista, sigue siendo necesario definirla como un asunto público y un problema social, la más grave consecuencia de la desigualdad.

La Asamblea de Mujeres lideró las acciones para demandar al Ayuntamiento la creación de servicios municipales, como la Oficinade Atención a la Mujer, abierta en 1988 junto al Piso refugio para mujeres maltratadas, que, hasta el día de hoy, ha acogido a muchas mujeres y a sus hijas e hijos.

La sociedad civil también ha mostrado su capacidad para hacer frente a este grave problema, creando plataformas que son espacios abiertos para la reflexión o la prevención y el fomento de los buenos tratos, para que las mujeres puedan decir ¡basta! y caminar tranquilas y en libertad.


Mujeres de Ermua solicitan de nuevo una casa refugio para víctimas de malos tratos

# Viviendo las fiestas sin agresiones y en la calle

Principios de los 80 del siglo XX  Plaza Cardenal Orbe

Txaranga Panpox ¡¡Sal a la calle!!

El feminismo reivindica el derecho de las mujeres a disfrutar en libertad e igualdad el ambiente festivo y nocturno, sin miedo a sufrir agresiones sexistas y sin tener que renunciar al disfrute de esos espacios y tiempos. La Asamblea de Mujeres ha defendido desde siempre la visibilidad, presencia y participación de las mujeres en las fiestas. Creó la Txaranga Panpox de mujeres, llevando a Lilith, la primera mujer, dibujada en sus camisetas lilas. Y en unos carnavales parodiaron la represión que la institución del matrimonio y la Iglesia ejercen sobre las mujeres.

Con las jóvenes, se siguen denunciando las agresiones de carácter sexual, sensibilizando sobre el tema a través de pegatinas y acciones directas en bares y otros locales.

## *Las fiestas y la noche también son nuestras*

# Jaiak erasorik gabe eta kalean bizi

XX . mendeko 80ko hamarkada hasiera  Kardinal Orbe Plaza

Panpox Txaranga - Atera zaitez kalera!!

Feminismoak aldarrikatzen du jai eta gaueko giroaz askatasunez eta berdintasunez gozatzeko emakumeen eskubidea, eraso sexistarik izateko beldurrik gabe eta espazio eta une horietan gozatzeari uko egin beharrik gabe. Emakumeen Asanbladak betidanik defendatu du emakumeen ikusgaitasuna, presentzia eta partaidetza herriko jaietan. Panpox emakumeen txaranga sortu zuenean Lilith zeramaten kamiseta liletan marraztuta, lehen emakumea eta inauteri batzuetan ezkontzak eta Elizak emakumeen kontra egiten duten errepresioa parodiatu zuten.

Ermuko emakumeok sexu-eraso eta eraso sexista guztiak salatzen jarraitzen dugu, kartel, pegatina eta abarren bidez, hainbat prebentzio eta sentsibilizazio-kanpaina eginez, eta tabernetan zein beste lokal batzuetan zuzeneko jarduerak antolatuz.

## *Jaiak eta gaua gureak ere badira*










# Ermuko **emakume gazteok**

### 1981. urtea   Goienkale

XX. mendeko laurogeiko hamarkadan nabarmendu ziren Gazte Asanbladak eta "gaztetxeetako mobidak". Gazte Asanblada haietan emakume gazteek hartzen zuten parte, euren emakume aldarrikapenak egin zituzten, euren presentzia nabaria izan zen eta kolektibo mistoetan era aktiboan hartu zuten parte.

Ermuan, sasoi hartan, hainbat kultura eta elkarte ekintza egon zen eta neska gazteak giro hartan jendarteratu ziren: Herri Kandidatura eta lehen hauteskunde demokratikoak, Emakumeen Hautagai Zerrenda, planinaren aldeko borroka... Aurreko bizipen guztiek ahalmen kritikoa sortu zuten eurengan, eta **1987an, Emakume Gazteen Taldea** sortu zuten. 1991ko udal hauteskundeetan, Gazte Nahaste izeneko Gazteen Hautagai Zerrenda aurkeztu zuten, eta 1993an, Gazteentzako Sexu Informazio Bulegoa sortu zuten.

### XX. mendeko 90eko hamarkada   Zuloa Kultur Elkartea-Goienkale

**Nushu** Emakume Gazteoken jarraipena eta belaunaldi berria da. Kaleak, tabernak eta plaza izan dituzte militatzeko espazioak, eta pankartak, pintadak eta megafonoa kontzientziazio eta ekintza politikarako oinarrizko tresnak.

"Feminismoaren betaurreko lilak janzteak munduari begiratzeko, sentitzeko eta ulertzeko bestelako era dakar, eta ez du atzera bueltarik"



*Emakume Gazteak: aske ta errebelde!*





# Grupo de mujeres jóvenes

### año 1981   Goienkale

Los años 80 del siglo XX se caracterizaron por ser la época de la "movida de los gaztetxes" y las Asambleas de Jóvenes. Las jóvenes que formaron parte de esas Asambleas de Jóvenes trasladaron sus reivindicaciones como mujeres, tuvieron una presencia destacada y participaron activamente en estos colectivos mixtos.

Se socializaron en la movilización y acción cultural y asociativa propia del pueblo de Ermua en esa época: la Candidatura Popular y las primeras elecciones democráticas, la Candidatura de Mujeres, la lucha por el planning... Estas vivencias previas crearon en ellas una capacidad crítica que les empujó a conformarse como **Grupo de Mujeres Jóvenes en 1987.** También participaron en las elecciones municipales de 1991 en la Candidatura de Jóvenes - Gazte Nahaste y en1993 en la creación de la Oficina de Información Sexual para Jóvenes.

### Década de los 90 del siglo XX   Zuloa Kultur Elkartea-Goienkale

**Nushu** representa una continuidad y una nueva generación de "mujeres jóvenes". Las calles, los bares y la plaza han sido sus principales espacios de militancia, y las pancartas, las pintadas y el megáfono sus herramientas básicas de concienciación y acción política.

"Ponerse las gafas lilas del feminismo aporta una nueva forma de mirar, de sentir y de entender el mundo que no tiene marcha atrás"







# Mujeres y deporte

El deporte también ha sido un espacio históricamente vetado a las mujeres. El trato discriminatorio, la ausencia de referentes o modelos femeninos, el menor apoyo social, institucional y empresarial, no impidieron ni impiden que las mujeres hayamos ocupado este espacio rompiendo estereotipos y normas.

En nuestro pueblo ejemplo de ello son las ***raquetistas o pelotaris*** (mediados del siglo XX), ***los equipos de fútbol femenino y balonmano,*** como las chicas del Club de balonmano Errotabarri, campeonas de Euskadi en 2011 y 2012, los triunfos cosechados por ***las atletas*** de nuestro pueblo, mendizales, y cómo no, todas las mujeres que diariamente ocupan los caminos a Hambre y Mallabia en sus ***"paseos a buen paso".***







# Emakumeak eta kirola

Kirola ere emakumeei historikoki ukatutako esparrua izan da. Tratu diskriminatzaileak, erreferente edo eredu femenino ezak, jendarte, instituzio eta enpresen sustapen faltak ez zuten, eta ez dute, galarazi emakumeek eredu eta arauen gainetik, esparru horretara sartzea.

Gure herrian honen adibide garbiak dira: XX. mende erdialderako ***erraketistak edo pilotariak, futbol eta eskubaloiko taldeko neskak,*** Errotabarri *eskubaloi* taldeko neskak, 2011an eta 2012an Euskal Herriko txapeldunak izan zirenak, gure herriko ***atletek*** lortutako garaipenak, *mendizaleak* eta, nola ez, egunero Hambre zein Mallabiko bideak okupatzen dituzten *emakume guztiak* ***"erritmo bizian egindako ibilaldietan".***

## Kirolean ere berdintasunaren alde

# Educando en igualdad

año 1990 Centros Escolares










Conscientes de que los centros escolares pueden ser espacios básicos para el cambio social, en 1990 un grupo de profesoras con perspectiva feminista comienza a trabajar en el desarrollo de una *ESCUELA COEDUCADORA* que forme personas al margen de roles y estereotipos y que incida en la corresponsabilidad. Así comienza un trabajo de formación del profesorado, análisis de textos y uso del espacio y del lenguaje sexista, campañas como las del juego y el juguete no sexista, 8 de marzo...

Se formó una Comisión de Coeducación y en el año 1995 el Departamento de Igualdad contrató durante un año una técnica de igualdad, para la realización y coordinación de un programa de orientación profesional y educativa no discriminatoria.

*Educación para las mujeres, coeducación para el cambio social*

# Berdintasunean hezten

1990. urtea Ikastetxeak

Eskolak jendarte aldaketarako oinarrizko espazioak direla ohartuak, 1990 urtean ikuspegi feminista zuten zenbait irakaslek lan bateratua hasi zuten benetako HEZKIDETZA ESKOLA BAT garatzeko. Hau da, rolak eta estereotipoak albo batera utziz eta erantzunkidetasuna bultzatuz, pertsonak prestatuko dituen eskola bat. Horrela, hasierako lanak irakasleak sentsibilizatzea izan zen; ondoren, aztertu testu-liburuak, espazioak nola erabiltzen diren eta hizkera sexistaren erabilera, joko eta jolas ez sexistaren aldeko kanpainak egin, martxoaren 8aren ingurukoak eta abar.

Hezkidetza Batzordea sortu zen eta 1995ean Berdintasun Sailak berdintasun teknikari bat kontratatu zuen, urtebeterako lanbide eta hezkuntza orientaziorako programa ez baztertzailea egin eta koordinatzeko.




*Emakumeentzako heziketa, hezkidetza jendarte aldaketarako*

# Candidatura de mujeres

Junio de 1987 Ayuntamiento

Estaban convencidas de que nadie iba a plantear y defender como ellas sus derechos, así que decidieron teñir de violeta, por primera vez, unas elecciones municipales, bajo el lema: *"Vamos a parir un pueblo distinto"*

Fueron meses en que las mujeres de la Asamblea, y otras que se sumaron a la idea, trabajaron con ahínco para colocar las reivindicaciones de las mujeres, convertidas en programa electoral, dentro de la agenda política municipal.

Faltaron muy pocos votos, menos de una veintena, para conseguir que su candidata resultara elegida como concejala.

Pero el esfuerzo no fue en vano. El colectivo de mujeres feministas salió reforzado y hubo una mayor presencia de mujeres en los otros partidos.

## *La Democracia será feminista o no será*






# Emakumeen hautagai zerrenda

1987ko ekaina Udaletxea

Argi zuten eurek planteatuko eta defendituko zituztela ondoen euren eskubideak. Beraz, lehendabizi, lilaz jantzi zituzten udal hauteskundeak, *"Herri berri bat erdituko dugu"* lelopean.

Hilabete horietan Asanbladako kideek eta ekimen honetan elkartu ziren beste emakume batzuek lan izugarria egin zuten emakumeen aldarrikapenak, hauteskundeen programa bilakatuta, tokiko agenda politikoaren barruan jartzeko.

Boto gutxigatik, hogei baino gutxiagoagatik, baina ez zuten zinegotzirik lortu. Hala ere, esfortzua ez zen alferrikakoa izan.

Emakume feministen taldea indartu zen eta lortu zuten beste alderdi politikoetan emakumeen presentzia areagotzea.

## *Demokrazia feminista izango da edo ez da izango*



# Emakumeen topalekua,

## *jabekuntza pertsonala eta kolektiboa*

2003. urtea Izelaieta kalea 12

Ezaugarri horiek dituen lehen ekipamendua izan da Euskadin, eta mugarri feminista izateaz gain, erreferentzia bilakatu da joan den hamarkadan beste udalerri batzuentzat.

1994an eskatua, bai eta HAPNren (Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren) baitako ekipamendu legez ere, hainbat proposamen, entsegu eta mobilizazioren ondoren, Emakumeen Topalekua - Casa de la Mujer 2003an ireki zen Izelaieta kaleko 12an.

Udalerriko emakumeek, lorpen horren eragile eta partaide, espazio ireki eta dinamiko legez definitzen dute, beraien jabekuntza pertsonal eta kolektiborako tresna legez. Berdintasunerako leku bat da, azken finean, helburu horren alde lan egiten duten talde eta pertsonei, gizon zein emakumeei, irekia, eta finkatuta dagoen baliabide bat da gaur Ermuan, emakumeen presentzia eta arrastoa ikusarazten duena.

*Gela propioa hiri paisaian*



# Casa de la mujer,

## *empoderamiento individual y colectivo*

año 2003 Calle Izelaieta, 12

Fue el primer equipamiento de estas características de Euskadi, y, además de ser un hito feminista, se ha convertido en un referente, al que han seguido otros municipios a lo largo de la pasada década.

Demandada en 1994 incluso como equipamiento en el PGOU (Plan General de Ordenación Urbana), tras varias propuestas, ensayos y movilizaciones, en 2003 se inauguró la Casa de la Mujer-Emakumeen Topalekua, situada en la calle Izelaieta nº 12.

Las mujeres de Ermua, agentes y partícipes de este logro, la definen como un espacio abierto y dinámico, dirigido a las mujeres, un instrumento para su empoderamiento personal y colectivo. Es un lugar para la igualdad, abierto también a los colectivos y personas que trabajan hacia ese objetivo y hoy es un recurso consolidado, que hace visible la presencia y la huella de las mujeres en Ermua.






*Una habitación propia en el paisaje urbano*

# 8 de marzo

## *Día internacional de las mujeres*

Todos los días son 8 de marzo

Calles y Plazas

**El Día Internacional de las Mujeres** se celebra cada 8 de marzo por todos los rincones del mundo para conmemorar la lucha de las mujeres por sus derechos y su participación en igualdad en todos los ámbitos de la sociedad.

Esta fecha es un referente de la lucha, la solidaridad y la movilización feminista. Cita de reivindicación y fiesta de las mujeres, viene celebrándose en el municipio desde finales de los 70. Por un día "vestimos el pueblo de lila".

# Martxoak 8

## *Emakumeen nazioarteko eguna*

Martxoaren 8a, egunero

Kaleak eta Plazak

**Emakumeen Nazioarteko Eguna** martxoaren 8a den bakoitzean ospatzen da munduko ertz guztietan emakumeen euren eskubideen alde egin duten borroka gogorarazteko eta jendartearen esparru guztietan euren partaidetza aldarrikatzeko berdintasunean.

Data esanguratsua da borroka, elkartasuna eta mobilizazio feministarentzat. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik ospatzen da udalerrian hitzordu hori, emakumeen aldarrikapena eta jaia eta, egun batez bada ere, "lilaz janzten dugu gure herria".







*La fuerza del simbolismo:*
*8 de marzo,*
*25 de noviembre,*
*28 de junio...*







*Sinbolismoaren indarra:*
*martxoak 8,*
*azaroak 25,*
*ekainak 28...*

# El Mapa de las Huellas de las Mujeres y del Feminismo:

## Cartografías colectivas del feminismo en Ermua



# Emakumeen eta Feminismoaren Aztarnen Mapa:

## Feminismoaren kartografia kolektiboak Ermuan




1 Lantegiak (Industrialdeak)
Fábricas (Polígonos industriales)

2 Labaderoak
Lavaderos

3 Emakumeen sustapenerako Zentroa
Centro de Promoción de la Mujer

4 Osasun Zentroa (Antisorgailu eta Sexu Informaziorako Udal Zentroa, Planina)
Ambulatorio (Centro Municipal de Información y Contracepción Sexual, Planning)

5 Gazteentzako sexu informazio bulegoa
Oficina de Información Sexual para Jóvenes

6 Zuloa
Zuloa

7 Etxeko langileentzako informazio bulegoa Oficina de Información Trabajadoras de Hogar

8 Emakumeen arretarako bulegoa
Oficina de Atención a la Mujer

9 Emakumearen ikasgela
Aula de la Mujer

10 Emakumeen Topalekua

11 Plaza

12 Emakumeen Topalekua (Jabekuntza Eskola, Berdintasun Saila)
Casa de la Mujer (Escuela de Empoderamiento, Departamento de Igualdad)

13 Ikastetxeak
Escuelas

14 Teresa Murga Eraikina
Edificio Teresa Murga

